

Tere Irastortza

IDAZLEA

Euli bat sartu zunan atzo gure sukaldean

Euli bat sartu zunan atzo gure sukaldean, eta isil-isilik ibili zunan, baina azulejo zuri gainean berehala nabarmentzen zunan. Garaiko kontuak, inolaz ere, zeren eta eulirik gabeko uda ez baitun agertu parte onekoa laborarientzat, *San Juan euli gabe, urtea ogi gabe* zioen errefraua adierazita uzten duen bezala. Baina banaka agertzen diren arren euliak, euliteriak iraganeko errealitate eta hitz bihurtu ditun, noski, animalia gutxiago eta gizajende gutxiago biltzen delako orain etxeetan, edota janariak hozkailuetan gordetzen direlako sukaldeetan.

Euli beltz horietakoa dun, baina abenduko eulia baino lotsagabeagoa suertatzen ari zaidan, gaur goizean. Nire paperak hartu eta ARGIArako lana idazten hasi aurretik, nola hasi erabakitzearen goela antzeman din nire belarriak aurrena, eta gero –isilduko ez zela– sortzen zuen zarrara beraren setak egundoko ernegarritasunera ekarri nain. Gaiztotuta zebilen bera, eta neu ere gaiztotzen... Orduan eta nabarmenago. Batetik, hauteskunde aurreko eta osteko diskurtsoak ordezkatu dituen zurrumurruari buruz pentsatuta neukana idazten uzten ez didalako. Bestetik, eulia bera uxatu ezinda nabilelako.

Edozeinek esango luke, toki berean gaude-la, biok ernegatuta, biok ezinen batek traba-



ALBERTO ELOSEGI

tuta edo bion ezinak bat eta bera balira bezala. Kontua da burura etorri zaidala, ez oso aspaldi, gaztelerazko kalkoei euliei baino tirria handiagoa genienean, edo zenbat aldiz aipatzen zen gaztelerazko “mosquear”en itzulpena. Eta nola gu baino gehiago zekite-nek esaten zuten ez zela esan behar *moskeatu*, eta haiek baino gehiago zekiten apurrek esaten zuten euskaraz ere bazela eulirik: *espara, mandeuli, euli handi, aken, bobili, eltxo, ulitxa, euli alper, euli makur, iteuli, eltxar...* Eta ausar-

tago izan behar genuela eta horiekin pentsatzera jarri eta ez euli-kakaren pareko eztabaidetan burua agortu, bestela ere baginela eta euskaldunak aski euli, aski beldurti.

Eulia sartu zunan gure sukalde... eta, egia esan, ez zaidan axola izaten eulirik etxera sartzea: etorritako bidetik joaten ditun gehienetan, bizitzako hainbat gertaera bezala. Txarra dun zera, aspaldian, etxera sartzen diren euli bakanak geratzeko bezala sartzen direla, eta, garai batean eztabaida zahar eta antzuei amaiera ezin eman zietenek bezala, ikusten dudala berriz gure

herria: ezer erabakitzeo gai ez garelako ikusita ere, euliari hegoa kentzeko ere ez garen euskal jendea, epe luzerako mugitu behar omen diren balizko hariekin aztoratuta. ■

« Txarra dun zera, aspaldian, etxera sartzen diren euli bakanak geratzeko bezala sartzen direla, eta, garai batean eztabaida zahar eta antzuei amaiera ezin eman zietenek bezala, ikusten dudala berriz gure herria »

TXANDAN

Amatiño

Zergatik?



Eman emate aldera demagun, esaterako, adibidea besterik ez da, jeltzaleak, sozialistak eta batasunekoak

biltzen direla eta, Euskal Autonomi Erkidegoan herri-kontsulta egitea adostu ondoren, sozialistek baldintza bakarra jartzen dutela: Herri-kontsulta bai, baina Eusko Alderdi Jeltzaleak kontrako kanpaina eginez gero; hau da, alde zuzenetik ezezko botoa eskatzera konprometitzen baldin bada.

Eman ere eman dezagun aldi berean, beste adibide bat besterik ez da, jeltzaleak, sozialistak eta batasunekoak biltzen direla eta zenbait urte barru Hegoalde osoarentzako erakun-

de bateraturen bat erreferendumean jartzea adostu ondoren, batasunekoek baldintza bakarra jartzen dutela: Erreferenduma bai, baina Nafarroako Alderdi

Sozialistak aldeko kanpaina eginez gero; hau da, alde zuzenetik baiezko botoa eskatzera konprometitzen baldin bada.

Denok ulertzen dugu Eusko Alderdi Jeltzaleari ezin zaio eskatu herri-kontsultan ezezko botoaren aldeko kanpaina egitea, trukean mortalak eta bi eskaini arren. Eta Nafarroako Alderdi Sozialista behartu al daiteke, bakearen truke, Hegoaldearentzako erakunde bateratuaren aldeko kanpaina egitera? Zergatik?

Ulertu nahi duenak uler dezala. ■